

Amabiak baiño ez dirala diñozu zuk. Bedi, baiña areago ez ba'litz be, begira : zuk ez al daki-zu, eguerdira ezkeru, arrastia dana ?

Niri oso errez yat eguzkia an arroz-sail aren atzanean dagoala iruditzea, bai ta arrantzale zarra urtegi ondoan dabillega be, aparitarako bedartzar billa.

Ara, nik begi biak itxi ta madarraren itzala gero ta baltzago begitantzen yat, idoi edo potzuko ura be baltz-dizditsu biurtu da.

Gabaz be amabiak izan ba'daitekez, zergaitik gau ez izan am.abietan ?

## 29

## IDAZLEA

Aitak, zuk diñozunez, liburu asko idazten ditu, baiña nik ez dot arek idazten dauan tautik be aituten. Gau osoa egin dot zuri gauzak irakurten. Esaidazu, ta zuk ulertzen zendun berak esan nai ebana ? Zuk bai dozula, ama, ipuin-jario ederra ! Zergaitik ez ete dauz, aitak be, orrela idazten ? Bere amak ez ete eutson iñoiz be edestu erraldoi, maitagarri ta errege-alabaen kondairarik ? Edo aitzu egin ete yakoz guztiak ?

Egunik askotan, eun bider gitxienez deiegin bear dautsazu ezkotegira baiñu artzen joan daiten. Eta jateko be zain zagokioz, eta barrero berotu bear izaten deutsazu janaria, eta berak idatzi ta idatzi

oroz aitzurik. Beti jolas bardiñean, liburuak idazten ! Baiña ni bein bertan ba'noakio, gelara jolas-zurrean, bertatik zoaz zu nire billa, garrasi baten esanik: "Biurria zaitut, seme !" Zarata pizkat atara ordukoxe zuk diraustazu: "Ez ete dakuszu aita lanean dagoala ?" Ai, ez dakit zer atsegin izan daikean beti idatzi ta idatzi !

Eta nik aitaren arkatza naiz lumea artu ta bere antzera a b e g i j k l m n ñ o p r idazten jarten nazanean, bere libururen batean batez be, zer dala-ta orrelan sumintzen zaiataz, ama ? Ari ez dautsazu egundo be asarrerik egiten idazten daua-lako ! Antza danez, ez dautzu ardurarik arek ainbat ingi, paper alperrik galdu arren. Nik, oster, orritxu bat bera artzen ba'dot ontzi bat egiteko, or zaukadaz agiraka : "Zoratu bear nok, seme !" Eta aitari, ainbat orri alderdi bietatik izki baltzak egiñik ondatu arren, ez dautsazu ezer esaten.

## KARTERU TXARRA

Ama, esaidazu, zergaitik, zagoz ain ixil ta goibel, or zelaian jarrita ? Ez dozu ikusten, euria leitotik sartzen yatzula, ta bustiten zagozala ?

Entzun, totoa laurak joten dago ta anaiak, onezkero, eskolatik etorri bear dau. Zer dozu, ama, esaidazu; zergaitik zagoz ain zera ? Gaur ez ete dozu aitaren eskutizik izan ?